1.º URTEA

IBAIZABAL

2n GUEIA

IGANDEETAN IRTETZEN DA | BIZKAIKO ETA GUIPUZKOAKO EUSKERAZ EGUIÑA | DOMEKETAN URTETEN DAU

1902-ko Ilbeltzaren 12a | **Euskalerrian, iru peseta urtean.—Erdalerrian, sei peseta urtean. Guci Bakocha, Chakur chiki bat.** | 1902-ko Urtarrillaren 12a

IBAIZABAL-en Echea: Bilbon—Dendari Kalean (Calle de la Tendería) 19—Jaun José Astuy-renean.

EUSKERAZ EGUIN DAIGUN

Bilboko kaleetan entzuten dan euskera guztia edo gueiena nekezale antzekoak, baserritarrak umezaiñak, iñudeak, arrain-saltzailleak eta onetarikoak eguiten dabe; Jaun usaiñik daukenen artean guichi edo bapez. Ta gure erechi au askok euki bear dau, bada irakurkizun au eguiten dagoan onek (1) baserritar bategaz Bilboko Areatsan euskeraz ziarduan baten, albotik joazan guztiak beguiak zabal zabalik beguiratuten eutsen, gauza ikusgarri bat, Chino edo Indio-ren bat aurrean euki balebe leguez.

Au ikusirik, bein baino sarriago etorri iakuz gogora itaune batzuk: Guizona, ¿kanpotaraak etedira emengo Jaun Andra edo *señorito señorita* guztiak? ¿Euskeraz berba eguiteak aldean nai-ta-naiez etedaroa beartsu edo ezeuki edo pobre izatea? ¿Ezetodago euskaldunen artean lau laukoren jaube dan guizonik? Zentzunak laster erantzuten dau ezin leikela izan; da ezta izan be. Zoaze echerik eche urlia ta berendia ta sandiari agur-aldi bat eguitera, ta aurrez aurkituko dozuez euskaldunak Jaunjantzia soiñean darabillenen artean.

¿Zegaitik da, bada, onek euskeraz ez berba eguitea? ¿Zer dabe, euren asaben, euren gurasoen, euren anaien, euren enda edo *erraza* arguiaren izkuntza zaar eder zakon berarizko au ez erabilteko ezpanetan?

Askoren artean, oituta dagozalako gazte gaztetatik euren gogamenak arguitara erderaz ateraten, batez bere abade, legueguizon, osaguille, ta ikaskuntzetan luzero ibilli direan guztiak. Onetarikoak gogoa biortu bear dabe zerchobait (bakarrik zerchobait) euskeraz egunero jarduteko, ta orretarako gogoa daukee makala, aldatz-gora apurrerako eztaukee indarrik eta, beraz, arri-tzarrak leguez aldazbeerantza artuten dabe bidea, erraztasun aldera.

Eguia esan bear bada, orresek daukee erru asko euskerea galduaz badoa. Ona zegaitik. Guizartean euren urrengoko lerroan dagozanak, burua Jaun ichuran zelan aguertuko arterik artu eziñik dabilzanak, *ilustraziño* usaincho bat erakusteagaitik belarri bat edo biak pozarren emongo leukeezanak, ikusten dabe euskeraz diarduenak guizartearen beeko beeko, azkenengoetako lerroetakoak direala bakarrik, eta eurak jantzian, berbetan, ibilkeran da gauza guztietan eredutzat edo *modelo*tzat arturiko guizon arguiak eztabeela sekulan euskerarik eguiten; eta au ikusieran, kirtenen gauzatzat botaten dabe euskerea, ta al dabeen guztian erdereari ekiten deutse, mordoillo mordoilloka bada be, ta seme-alabak erderaz ikasi daien ardura andia artzen dabe, ta euskerarik ikasten ezpadabe, obe; alanche eukiko dabe (euren ustez) andikiusain gueiago.

Lenengo lerrokoak bigarrekoai eraguin deutsena, era berean eraguiten deutse onek irugarrenekoai, ta alan dator maillarik mailla goitik asi ta beeraguiño, alde batera barregarrizko ta bestera kaltegarrizko andikiuste ori.

Cervantes ospatsuak diño bere irakurgai baten, latiñ jakiñaz bakarrik eztabela guizonak jakituriarik edo buru onik erakusten, bada Erromanuen denporan asto galantak bizi izango zireala latiñ parra parra berba eguiten ebenen artean; ausse, *Cervantes*-ek latiñagaitik baiño askozaz zuzenago esan gueike erdereagaitik. Guizonak, ¿erderea ederto dakienen artean eztozue astorik ezagutu? ¡Bana banakoak dagoz ba!

Beraz, kikili-mokolo erdera ziztrin bat jakin arren ¿zerzaree euskaldun utsak baiño guéiago? ¿Zegaitik onei goitik beera destaiñaz beguiratuten deutsazue, bear-bada zeuek kirten andigoak bazaree? Ez, ez euki astotzat euskeraz bakarrik berbetan dakiena, bestelan, neurri bategaz neurtu ezkero, munduko guizonik gueienak euki bear izango guendukez astotzat, bada gueienak dira euren Erriko izkuntzea baiño besterik eztakienak.

Maite izan daigun gueure euskera ederra ta gueure ezpanetan erabilli daigun aldogun garai guztietan erderea bear-izana dagonareako ichita; ezkaizan lotsatu euskeraz berba eguiten; erakutsi daigun nor garean, munduko Erri guztietako semeak bekokia aguiri aguirian dabeela erakusten dabeen leguez; eztaigun laketu gueure erruz galtzen euskaldunen Erri beguiragarriaren arimea; ezautu daigun gaur arte galdu dan eta gaur galduaz doan euskeratasuna guere erruz dala, beti kanpotarren lepora bota barik erru ori; onek eurok eguiten dabena eguin daigun guk bere, au da, ekin leku guztietan gueure berbetiari, ta orretara, emengoak euren ondoan erderaz ikasten dabeen leguez, euskalodola zanetan daroen Bilbo aldeko semeak euskeraz ikasiko leukee gure ondoan, ta laster ikasi be, euskeriari emengo jenteak deutsen gogo ederra kontuan euki ezkero; orretara, eutsin ez eze, zabaldu eguingo gueunke gure euskera maitea.

Ondo ta larregui bere badakigu askok eta askok onetariko esanak entzueran, irribarrechu bategaz esango dabeela «amaika zoro baiabilk eziñeko gauzeari zirri ta zirri». Ta orraitiño, orrechek, irribarrechudunok, izaten dira aurrenengo euren buruak euskalduntzat aguertuten iñoz gure Erriko gauzen ganean barriketa-aldiak eguiten direanean; orduan izaten da berbachu bat edo bi euskeraz esatea, orduan ¡a! ta ¡o!-ka ibiltia, «Guernikako arbola» dala, gure ekanduak edo kostunbreak direala.

¡Guztia barriketa utsa! ¿Zelan izan leiteke euskaldun ona, euskera jakin eta eguin gura eztabena? ¿Zelan izan leiteke euskaldun ona, euskereari destaiñaz beguiratuten deutsana?

Euskaldunaren aguergarririk onena, euskerea da; aiñ dan alan eze, Gaztela aldean bertan sarri ikusi dot guertaera au. ¿Nungua zara zu?—Ni Bizkaiko semea, edo Guipuzkoakoa edo Naparroakoa.—¿Euskera jakingo dozu beraz?—Baietz badiño, orduanche beguiratuten deutse gogo onagaz, da bi egon ezkero, euskeraz berbetan ipiñi arte eztira isilduten; ezetz badiño, sarri entzun bear izango dau: Ba, ba, zu orduan etzara gu baiño euskaldun gueiago. ¿Zelango Frantzesa da frantzes eztakiana? ¿zelango Ingelesa ingueles eztakiana? ¿Zelango Euskalduna euskeras eztakiana?

Orregaitik, bein baiño gueiagotan daukat entzunda Bilbo ta Balmaseda ta Araba aldeko semeai: ¡Edozer gauza emongo neuke euskera jakiteagaitik!

Irakurkizun au ezta onentzat, euskeraz jakin da eguin gura eztabenentzat baiño.

Dakigunok eguin daigun ba eguiten dogun baiño sarriago, ta eztaigun aztu Euskalerriaren zimendua euskerea dala; au galtzen baiaku, joan zan sekulako gure Erria.

BLOA.

(1) Baserritarra da bera, jatorriz eta jaiotsez, baita bere izatez; baiña guizarteak (sozieda deak) daukazan eskabideakaitik, abarketakaz da brussaz da chapelaz nasai nasai ibilli bearrean, *señorito* jantzi koitauaz ibilli bearra dauko.

EUSKAL IZAERA

Biyotz on baten gandik
entzun bezazkite
gaur esan nairik dauzkan
zenbait borondate.

Euskal oitura eta
usariyo lenak
mundua dan ezkero
jarriyak daudenak
zeñak kentzen zituzten
naigabe ta penak
nai ditugu len ziran
bezelashen denak;
Gorde zaizkigun legue
guraso zarrenak
errespeto aundiko
jakintsu ayenak
ta leguearekin bat
len lengo omenak,
munduan esagutzen
diraden onenak,
ain gosho maitaturik
berak zituztenak;
Ayek ziran poz gayak
euskal semienak,
ayek bai ekartzalle
argui zuzenenak,
lur maite fedetsu ta
laguntzallienak
aberatz aundi chiki
ta beartzubenak.
Ayek alaitzen zuten
guziyen barrenak
banaturik gu gana
beti zori onak
Oraindik gure lurrak
Badauzka zaiñ onak;
tentetu bear dira
etzanda egonak;
sutitu bear dira
okertzen zendenak,
zuzentzen ta edertzen

saya gaiten denak,
Guk ere borondate
emen dauzkagunak,
dira jatorrak eta
biziro legunak;
onez aurrera ere
datozen egunak
baturikan igaro
zaizkigun, lagunak,
denak guera Aitorren
seme esagunak
euskal lurren odola
bulartzen degunak,
¡aurrera ere orla
guizon jakintzunak,
eta ala berian
guchi dakigunak!
estutu gaitzan euskal-
dun katetasunak:
¡Bizi bitez bai bizi
beti eskaldunak;
eta oitura onak
lendik ditugunak!

JOSÉ ARTOLA.

EUSKALDUN ERDALZALEA

Polaina....

I

—Mari Juan; ¿aguertu zera?

—Bai emakumea; nekez, baiña ziur.

—¿Nekez? ¿Zenbat denbora da ba juan ziñala? ¿urte bete bai?

—Alajaiña etzenduke guchi nai; urteak irureun ta irurogueita bost egun ditu.

—¿Ori guzia Balladolid-en ikasi dezu? Eguia esateko, eztezu guchi eguin.

—Ori ta zerbait gueiago ere bai, bakarrik ogueita bost egunean.

—¿Eta erderaz ezerki moldatu zera?

—Gauzarik bearrenetan bai; buenastias, buenestarrez, buenamoches, eta orrelakoak ikasi ditut.

—Etzera aiñ makal makala ere; eta ¿zer esan nai dute itz oiek?

—Egun on, arratzalde on, eta gabon.

—¿Eta beste gauzarik ikasi dezu?

—Bai; zuri esango dizut konfiatzan. Oraingo morako ille molchua buruan ipintzen ikasi det, eta igandean ikusiko nazu. Nola nik ille aiñ piña dedan, zapalcho guelditzen zitzaidan baiña korcho-punta bat barruan jarri diot, eta perpetamente. Oraiñ ez iñori esan, ¡chitón, issilentzio!

—Emakumea; gauza gueiegui dituzu oiek aiñ denbora guchian ikasteko.

—Guelditu zait ba oraindik ere asko nai nuen gauza bat, ikasi gabe.

—¿Zer ote da ba gauz ori?

—Polaina zer dan eztet ikasi.

—¿Zertako dezu ori jakitea?

—Badakizu ba..... Parrandasek sarritan esaten duen itz bat da orisse ta.....

—¿Nor da Parrandas?

—Or, aurreko kinkilleru ori.

—Ori eztezu Parrandas, baizik Fernandez.

—Alperrik dezu ba; nik beti esaten diot Parrandas.

—Eta ez datorkio aiñ gaizki ere; izen orren jabe badala uste det. Eta aleguia, ¿amak zer dio?

—Amak Perrandi deitzen dio.

—¿Alper andi? Eztet uste izen orisse ere gaizki datorkionik. Baña gañerontzian ¿zer dio?

—Eztu beste kejarik, baizik denbora gueieguian egoten naizela Parrandasekin iturritik onuntzakoan; eta esaten dit, egon bear badet, egon nadilla aruntzakoan.

—¿Zergatik ote da ba ori?

—Nunbait luzerocho egoten naiz, eta guero sullan ura epeltzen zait.

—Eta orain ¿zer eguiten dezute ba?

—Aruntzakoan egon, eta onuntzakoan etorri alkarrekin, ura epeldu eztediñ.

II

Igande goiza zan, ez nai bezin laster eldua. Mari Juan, sulla besuan zuela, eta Parrandas albuan, iturrira eldu ziran biak. Parrandas guizon erdibat bezela zan, eta Mari Juanen galtzarberaiño zan luzeeran. Mari Juanen buruko ille moltsuak zirudien konilla, muturraz gora jarria. Sulla beteta, asi zan buruan ipintzen, baiña sullaren azpiak etzuen arkitu egoarririk Mari Juanen buruko ille moltso muturdunean; alboraka eguin zuen, eta erortzean, sartu zitzaion Parrandasi sulla burutik beera ukalondoetaraiño, preskaldi eder bat emanaz. Izuturik Mari Juan, zer eguiten zuen etzekiela, juan zan iguesi bere echera baña emakumea zan bezela, nai zukean jakin zer eguin zuen Parrandasek. Beguiratzen du leioaren zirrikitu batetik, eta ikusten du, nola amona zarcho batek errukiturik, ateratzen dion sulla, eta Parrandasek, ostikoaz joaz, sull ori botatzen duen, esanaz *Me chiflo en tí, polaina*. Au aditzian esan zuen Mari Juanek: ¡ay ay! enekien nik orainche arte sullak erderaz izena *polaina* zuenik. Orra Balladolid-en ikasi eztedana emen bertan ikasi. ¡A, Parrandas guizajoa!

III

—Queriro Parrandas: No te empaduste por el pasaiso de ayer, porque no es mal voluntá, sino descuiro, metiro polaina por cabesa, como murrion; pues un corcho-punta es toro culpa. Lastimero es, pero baño presco no es caltegarri en salut, porque méricos también mandan truchas (1) con agua presca, y aunque el cuerpo está bran-bran y mucho zotiñ, es un sacabientos arriba.

A Dios; tu amiga querira de corason

MARI JUAN.

IV

Aborrecida Maria: Polaina, polaina y..... repolaina.

P. M.

1902 ko Ill-beltzaren 3n.

(1) Duchas.

Maizterra (1)

Maizterra, beti beti echagunen guisan
Gabez lapurren einda aberatz bizi zan;
Ta beragaitik asko aurkitu zirean,
Soloetan zaintzaillak jarri bearrean,
Abade Jaunagana batzuk joan ziran,
Lapurretea zer zan predikau eguian,
Baita azaldu eban lenengo domekan,
Gabetako lapurra bazan emendetan.
Esan eban lapurrak kondenariñua
Eukala biurtuten ezpeban ostua,
Eta maizterra zelan zan pekataria,
Au entzunak emonik ikara larria,
Ta abadeak besoa zelan eban jaso
Berbeari gueiago indar emoteko,
Maizterrak pentzau eban zerbaitegaz bera
Joiala jaurtigui ta buruan jotera,
Eta zelan bildurrez burua makurtzen
Daben, jenteak deutsa usaiña artuten,
Esanaz aopean eleissako danak:
«Burua makurtu dau errua daukanak».

Pekatua gueienez dator azalera,
Bestelan biziten da barruan artega

FELIPE ARRESE TA BEITIA.

ESTUALDIETAN

II

254-garren arrankaritzarra

Eztot esango zein uritan zan. Illundu baiño lenchuago guizon bi etozan, elizguizon gazte bat erdian ebela, erderaz berbetan; euskera-usaiñeko erderea, *se* askoduna; baiña erderea beintzat. Eurak igaro bear eben bide-ertzean burdi bat egoan, burpill edo chirrika bat basatzan sartuta arra bete inguruan ebala. Burtzaiñ edo karretero mandarra, beguietatik sua eriola, aiñenka ta makillaka bei nekatuakausten egoan. Bere ezpanetatik urteniko berbak euskerazko iztegui edo berba-liburuetan eztauke bizi lekurik, Elizguizona ikusita, len baizen biribillak ezarren, aiñen zorrotz banakaren batek urten eutsan. Orduan abadeak, indiano-antzeko lagun biai *pues claro* erantzunda, bigun bigunchurik «Ze berba dira berbok? «esan eutsan; «nik uste neban gure idi ta beiak erderarik eztakiela; baiña....

—Euskera baaldakie?

—Aiñenik esan barik ezin zirikatu dozuez beiak?

—Bai, Ave María errezata edo....

—¿Gura dozu, adiskidea, aurrera eraguin baietz neuk, baldin indarrik badauke, aiñenik ez birao ikaragarri barik?

—¿Berba garratzik esan barik? Eztakit orisse.

—Ekazu ona akulu ori.

Eta kapela-manteuak indiano bati emonda, asi zan esaten:

—Berreun da berrogueta amalaugarren arrrrrrankaritzarra.

Beiak oker oker eguinda zarrada baten atera eben burdia bide-erdira.

—¿Ikasiko eteioagu? esan eutsan abadeak baserritarrari, onek lotsaz eskerrak emoeran, ¿ikasiko eteioagu?

—¿Zelan esan dau? Berreun da berrogueta amalau ala amaseigarrena?

—Bardin dok, amar gueiago ezarri gura badentsazak be.

EKETAK.

(1) Errenteroa.

EGUN-SENTIA

Egun-sentia
Datorrenean
Dator poztasun andia;
¡Nok adierazo
Zein ederra dan
Egun-sentiko arguia
Iratzartuten
Dauz chorichuak,
Zeintzuk dabiltzan triskean,
Adarrik adar
Arbola buru
Orritsuaren gañean;
Eguzki aldera
Beguiratuaz,
Zoro dabiltzaz benetan,
Chorrochioka
Diarduela
Alkarren leian kantetan.
Perlak langosse
Ur tanta polit
Biribill eta arguiak,
Jausi-aguiñik
Zinzillk dagoz
Orri ertzetan jarriak.
Ibarra zear.
Bira biraka
Doian erreka-charkua.
Edonok uste
Izango leuke
Badala zidarrezkua
Zeru urdiñean
Saka banaka
Gueldi dagozan odeiak
Eguzkiaren
Erraiñuakaz
Dirudie urre-mokillak.
Mendietako
Tontor gaillurrak,
Pozarren dagoz ichaoten
Noz eguzkiak
Mosu laztan bat
Bialduko etedeutsen
Sortalderantza
Zerua dago
Kolore gorriz jantzirik;
Ara beguira,
Guiza (1) guztiak
Eztau eguiten zirkiñik
Ederra da bai,
Ederra guztiz
Benetan egun-sentia,
Aiñ ederra ze,
Bera azaltzeko
Niri falta iat grazia.

. . . . . .
. . . . . .
. . . . . .

Baiña ederrago
Da milla bider
Egun-sentiko orduan,
Ocan egon,
Luze ta zabal,
Goizaldeko lo gozuan.

B.

Bilbon urtarrillaren 9 n, oearen erdi ardian, goizeko s ta erdiak inguruan.

(1) Guiza, naturaleza

ASTEKO BERRIAK

Guipuzkoan

Ill onen 26ª berriro ere *Chanton Piperri* kantatzeko ustea dute Donostian, eta ez Urteberri egunean kanta zan tokian, baizik Biltoki Nagusi edo Teatro Principal-ean.

Onek adierazten du jente asko dagoela opera ori ikusi edo aitu nairik, toki aundiagoan ipintzea asmatu dutenean.

Emen Bilbon ere poz aundiakin entzungo lezake. ¿Ezin alda eman Bilbon festa ori?

——

Donostiako Ayuntamentuak ill onen 7ª iduki eban beraren lendabiziko jarrialdi edo sesiñoan, etzuen erabaki idiak korrituko ziran ala ez, uri atako jaialdietan.

Adar-kontu onek ematen du zereguin Iruchulo-ko *erriko sheme* maitegarrien artean. Batzuek diote idi erabilte ori eztala komeni, Donostia bezelako uri zibilizatu batean; besteak diote aurrerakuntza edo zibilizazioak ez duela zer ikusirik idi kontu oiekin, eta beti betiko oitura zaarra dela Donostian, eta zergatik eguin bear eztan, ta ala jarraitzen diote.

Guizonak, obeki eguingo zenukete idi'oiek beste ainbestekin gueitu, eta pake gossuan berak jatera joan Donostia-aldeko choko eder batera, eta an sabela ongui beterik sagardoz eta idikiz, aurresku batzuek dantzatu, eta bertsoetan ari zarela, echeratu oearen billa arria bezela lo eguiteko.

——

Motrikun, uriko-echean lapurretan norbaitek eguin omen du,eta lapurreta ori ez omen da naibezelakoa, baizik aundia.

Orrenbeste diru uriko-echean egoteko, ez ditu aleguia Motrikuko uriak kontu-erabiltzaille chaar charrak ere.

——

Donostian asto batek mutilcho bateri ortzakaz oratu zion eta zauri aundiak eguin ziozkan ezku eta besoetan.

¿Zer da au? ¡Gaur egunean munduko gauza guziak, atzekoa aurrera eta azpikoa gaiñera, itzuli bear dirala esan lezake! Gaur arte astoak, atzeko aldetik izandu dira bildur ematekoak baiñon gaur orrek ere aurrerakuntzeari jarraitzen diote, eta aurretik eguiten dute *astakeria*.

¿Asto ori *anarkistakaz* batu ote da iñoiz?

Bizkaian

Neskatillentzako dotiak edo ezkonsariak.—Anselma Salces eta Salas izena eban andra edo señora batek ichi ebazan diruak orretarako, ta Bilboko ayuntamentuak jakin eraguiten dau aurtengo Aprillaren 21ª emongo dabezala iru eskon-sari edo dote, bakocha 1500 pesetakoa.

Neskatillak euki bear dabezan baldintasun edo kondeziñoak eskonsari orrek artzeko, onessek dira:

Urteak 16-tik 22-ra, Bilbon jaioa, probea,ekandu enekoa;irakurten edo leiduten, eskribiduten, kontuak eguiten, planchatuten, jatekoa ipinten, da josten dakiana, ta (entzun ondo) *euskeraz berbetan dakiana;* baldintasun bardiñetan, Doña Anselmaren seniderik balego, a izango litzake beste guztiak baiño lenago.

Baldintasun onen barruan dagozala uste dabeenak, eguin leie eskabidea Bilboko alkateari, Martiko illaren lenengo amabost egunetan.

Doña Anselma lango asko bagengoz, laster issilduko guendukez, euskerea ezetarako eztala gauza ta, destaiñaz beguiratuten deutsenak. Andra ori Jainkoak eukiko al dau zeruaren erdi erdian.

——

Bilboko portuan amarrata dagoz ainbat ontzi: Zuria, Astarloa, Achuri, Seirak-bat, Mouro, Sardinero, Maliaño, Bostak-bat, Mayo.

Ontzi erosketa andiak eguin zirean lengo urteetan, baiña oraiñ salketarik eztago. Inglaterran bertan be asko eidagoz amarrata.

Aldi charra daroe ontzi jaubeak; bada, ichasoz dabilzanak be ez eidauke irabazte andirik, eroan-sari edo porte laburrak pagaten direalako.

——

Ill onen 26ª *Arza* derichon lekuan eguin bear dan nasa edo molleko obrak erematera aterako dira Bermeon.

16.933,95 pesetan jo-ta dago obra orren gastua.

——

Lekurik eztaukagulako ichi eguin bear izan dogu urrengo gueirako, Bermeoko Tertzadunak bialdu deuskun eskutitz edo karta bat.

Euskerazko periodikuak irakurten zalea danak, eukiko dau Tertzadunen barri, ta jakingo dau zelango gatza daukan amarratsaren adiskide orrek.

——

Lenengo gueian esan guendun leguez, gaur letra aundi nasaiaz da obeto moldatuta doa IBAIZABAL.

Eta euskal errietan zereguin andi barik dagozanai erregu bat. Bialdu eiguzuez erri aldeko barriak edo notiziak, eta euskerearen kontra iñor badabill esan eiguzue nor dan, orraztaldi bat berari emoteko.

Euskeraz eskribidutea edo izkiratutea gaitz eguiten baiatzue, oituta etzagozelako, ez bildur izan; eguin edozein modutan, gueuk orraztu ta zuzenduko dogu.

Erdalerrietan

Jarque derichon erri baten, Zaragozako probintzian, mutill pillo bat ebillen kalerik kale, ta norbaiteri miñ eguiteko kanta batzuk bota ebezanean, eldu iaken guizon bat, zeiñek esan eutzen ez eguiteko alango gauzarik; jolastu zeitekezala iñori miñik eguin barik.

Modu onean emondako esonde edo konseju oni chakurrenakaz erantzun eutsen mutillok, eta orduan guizona, alkateari zer ebillen esatera joan zan.

Au ikusirik, guizon aren semeari (eurakaz ebillen bera), asi iakazan joten. Biurtu zan aita semearen deadarretara, ta asi iakazan berari be, ta ez eutsen besterik eguin ausse baiño; arri bategaz jo buruan da konorte barik lurrera bota, lurrean egoala, iru kuchillada emon, da au naikoa izan ezpalitz leguez, buruan ostera be emon entseezan zartada batzuk.

¡Jan ezebenean guztien artean, Afrika aldeko guizon baltz basati edo salbajeen zor ez izateko!

Ta guero erdaldunak esaten dabe *zibilizaziñoa* ekartera datozala gure lurrera, ta astotzat eukiten dabe gure baserrietako euskaldun utsa!

——

Léridan, gabon aurreko loteriako sari nagusia jausi iakon bat ill da.

Aor zelan dabilzan alkarregaz poza ta atsakabea.

——

Italianuak be bizkortu gura dabe zerbait. Orain eidabiz Tripoli derichon Afrika-ko errialdea arrapatzeko gogoaz; da orretarako eun milla guizon atondu edo preparaten eidoaz.

Beste *Menelick* batek urteten badeutse an, ¡agur italianu koitauak! ¿Ezin dira gueldi egon euren lekuetan, iñori zereguiñik emoten joan barik.

——

Boerr-ak gogor eguiten deutse Inguelesai egunokaz. ¡Arek dira mutillak! Buru onekoak dira inguelesak, baiña arazo charrean sartu zirean or.

——

Barcelonan uelgak direala, Madrillan zigarroguiñan ibillten direan emakumen batzarra dala, ta Zaragozan euken gobernadorea andik doiala; eztago uri orretan bakerik. Guztia da arrantzea, astakeria ta arrikea ta ostiko-urtikea, ta aguintedunak edo autoridadeak, guardia zibillak, eta guztiak dabiz aidean.

¿Atzerakuntzean ala aurrerakuntzean etagagoz?

——

Eskutitzak edo kartak zuzendu beitez leku onetara «Tivoli, letra B, 2.º derecha.

IZKIRIMIRIAK

Erri batean, dama aberatz batek nai zuben bere izena jarri, ausoan jaio bear zuben aurchoari. Irichi zan egunа , aurcho kristautu bear zana; eta elizara joan ziranian erretore jaunak ezan zion damari onela:

—¿Nola bear zaio jarri izena mutillcho oni?

—Jauna, nik nai nuke ipintzea *Koncha*, zergatik ni naizen ala.

—Baiñan mutilla nola dan jaio barria, ez da egoki izen emakumearena jartzia.

—Nik ala nai det bada, eta ala bearko du.

Orduan, ez dama ezagun ura, ustegatik bere borondatea os tu gabe, esan zion.

—Ala nai badu eguingo da bedorren borondatia, eta jarriko diogu... *Koncho*.

Modu ontara erabaki zan guertaera au.

J. A.

——

BERARIZKO ORGAIÑUA

España-ko erregue Karlos I bere seme Felipe-gaz egon zan 1549 urtean Belgika-ko erri-buruan, Bruselas derichon urian, da euren egotaldía ospatuteko jaialdiak eguin zirean bertan.

Onen artean zan bat, uriko-echearen aurreko aldera ekartea berarizko asmakizunak, balkoietako erregue ta andikiai ta kaleetako aldrai barre eraguiteko, ta jolasaldi on bat igaro eraguiteko.

Asmakizunen artean, 'an aurkitu zireanentzako gogotsuena ausse izan zan. Burdi andi baten ganean orgaiñu bat eta berau joten artz jantziriko guizon bat. Orgaiñu onek eukazan oguetaka kuchak; kucha bakochean katu bat estu estu zirkiñik eguingo ezeban moduan, da katuak zirean, batzuk arrak, beste batzuk emeak, zaarrak eta gazteak, eredu guztietariko aotsak edo bozak euki eizan orgaiñuak. Katu bakocharen buztana kuchearen zulo batetik aguiri zan, da idolabala bategaz estuta egoan tekladu-ko zatai edo palanketara; onetara tekleari sakatu ezkero, idolabalearen bitartez katuari buztanetik tiratzen eutsan, da onek orduanche garrazi edo chilio edo miau eguiten eban.

Eta diño kondairaleak, aiñ ondo urten eutsala artz jantzirikoari bere asmuak eze, musika zati bat jo ebala zuzen da toñutik urten barik.

Orain eunen bat urte Londres-en ospatu eizan katu-kontziertu bat, baiña ez orgaiñu tramankuluaz, Bruselas-eko antzera. Orrelango kontziertuak entzuteko dubarik, ezta besterik bear ausse baiño: gaurtik illebete barru igon tellatura gaubean, da anche egon, musikeruok aguertuko dira ziur.

IGARKIZUNAK

Bata da letrea,
Bi garrena bardin,
Baita *iru* garrena,
Iru letra onekin
Guztia eguiten da,
askoz errezago,
arri ta kareaz
Ta zurakaz baiño

B.

ama
ama ak

J. ARTOLA.

(Erabaguia urrengo gueian)

LA EDITORIAL VIZCAINA derichon moldaguintzan
Gran Vía, 26-eta Ledesma, 15.

EUSKERAZKO LIBURUAK

Euskal—Izkuntza

Naiz bizkaitarra orobat guipuzkoatar izkuntza ikasi nai dituenak ez lezakete arkitu gai obeko libururik «Método práctico para aprender el Euskera bizkaino y guipuzkoano» eta «clave de temas ó complemento del método práctico» deritzaiotenak baiño. R. M. Azkue abadeak izkiratu edo izkribatuak dira.

Biak batean bost pesetan daude salgai IBAIZABAL-en echean.

Lora-sorta espirituala ta ESKU LIBURUA

Euzkeraz eguin direan libururik onenetarikoak dira onek, batez bere *Esku-liburua*, Ona omen beronegaitik zer esan eban Moguel euskalzale jakitunak:

«Ediroko dau *Esku Liburu* onetan, Bizkaiko euskeran ederto adierazo leitezala esan bear direan gauzaak, berba nekezaleen aoetan dabilzanakaz. Bizkai barru barruko semea da bera, ta bere euskera garbi ta ederrak ezagutu eraguingo dau nun-nai, ikasi leiteala ondo berba eguiten, burua zerbait nekatu gura bada. Alperren soloak beti egongo dira bedar charrez beteak. Bizkaitar guztiak erosi bear leukee liburuchu esan dogun au».

IBAIZABAL-en suskritorientzat iruna erreal dira;besteentzat launa.

PERU ABARKA

Juan Antonio Moguel, abadeak, izkiraturiko liburu eder onetan ikasi leike euskera garbi garbia ta igaro leitez aldi gogotsuak Maisu Juan-ek. eta Peru abarkak daukeezan autu edo konbertzaziñoakaz.

Azkenean dakar *apéndice* edo gueigarri bat, nun Moguel-ek adierazoten daben, gure berbeta saarra baserriko gauzak esateko baiño gueiagotarako dala gauza; orretarako dakaz euskeraz ederto ipiñita *Ciceron*-en berbaldia *Calilina*-ren kontra, Germánico-rena bere soldaduai, ta beste gauza batsuk *Q Curcio, Salustio, Tilo Livio, Tacito*-gandik artuta.

Liburu eder au daukagu salguei sei erleau

Parnasorako Bidea

135 orri daukazan liburua, D. AZKUEK EUSEBIO MARIA bertsoetan eguiñikoa

Liburu onek daukazan bertsoak klase onetarikoak dira:

I. Deboziñokoak. II. Ipuiñak III. Jolasgarriak IV. Kondairazkoak. V. Barregarriak.. VI. Ziri-bertsoak (epigramak). VII. Pozgarriak. VIII. Benetakoak (serioak).

Gure suskritoreentzak 2 peseta bakocha. Besteentzat 2,50 peseta.

AUÑEMENDIKO LOREA

Domingo Aguirre abadeak eguiña

Gure irakurleen artean asko izango dira liburu onen barri dakienak. Euskera garbia, irakaspen ona, liburuan Aguirre jaunak ipiñi dabezan lagunak (Riktrudis, Amando, Adalbaldo ta besteak) egoki ta moduz taiatuak....

Gaur-arteko nobela edo irakurgueirik onenetarikoa euskeraz. Peseta ta erdian, 1,50 daukagu salguei.

Deboziñoko liburuak

Kristau Doktriñ, aita Juan Antonio Ubillos-ek guipuzkoako euskeran eguiñikoa.

Konfesiño ona, D. Juan Antonio Moguel ta Urkiza, Markiñan abade izaniko euskalzale andiak bizkaiko euskeran eguiñikoa.

Bata zein bestea, 1,50 pesetan.

1897 ta 1899-garren urteetako Euskalzale

Berreun da zortzi orri-dun liburu ederrac. Gaur-arte ezta arguitaratu euskeraz euren esteria edo tamañuco libururik. Edergarri edo *ilustraziño*, kanta edo musika, irakurgai, ipuiñ, ikaskizun, chirristada, bertso, izkiri-miri, ta osterantzeko irakurkizunetan ezin esan-ala daukeez liburu onek.

Gaur egunean Euskal-errian daukaguzan eskritore gueienak lagundu eben euskalzalen orriak ornidu ta beteten; gogoratu beite, bada, liburu onen balioa.

Ondo moldatuak eta ondo azala ezarrita dagoz eurak. Bakocha 7,50 pesetan.

CHIRRISTADAK

Chirris-tek «Euskalzale»-n arguitaratu zituan irakurkizun barregarriak liburuchu baten polito batuta dagoz.

Gure suskritoreentzat sei erlean; besteentzat peseta bi.

Bein da betiko

Azkue abadeak eguiñiko irakurguei ederra. 64 orri-dun liburua, peseta bat.

IBAIZABAL

BIZKAITARREZ ETA GUIPUZKOARREZ EGUIÑA

Euskalerrian . . . . . 3 peseta urtean
Erdalerrian . . . . . 6 » »

Guei edo numero bakocha chakur chiki bat

Astean Asteangoa da, ta igandeetan edo domeketan urteten dau

Suskriziño lekua: Bilbon, Dendari kalean (calle de la Tendería), 19

JUAN JOSÉ ASTUY-RENEAN

Redakziñoa: Bilbon, Tíboli, letra B, 2.° derecha

Iragarriak

1.° orrialdean. . . . . peseta 1 lerroa
3.n » . . . . . » 0,20 »
4.n » . . . . . » 0,15 »

Beste klaseetako iragarriak itundu edo conbenidu bearrekoak izango dira

Aurretik pagau bear dira, bai suskrziiñoak eta bai iragarriak